



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Ethan Frome**
Egilea / Autora: **Edith Wharton**
Itzultzaileak / Traductorak: **Miren Arratibel - Aintzane Atela**
Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 185
ISBN / EAN: 978-84-9109-826-3
Salneurria / Precio: 18 €
Orri kopurua / N° páginas: 176
Formatua / Formato: 130 x 195 mm - Rústica / Paper azala
Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos

Lana / La obra

Landa eremuko herrixka batean gertatzen da istorioa, idazleak asmatutako Starkfield herrian, hain zuzen ere (Massachusetts). Maitasun istorio ezinezko bat kontatzen du, Ethan Frome gaztearen eta hura baino zenbait urte zaharragoa den Zeena gaixobera eta mesfidatiaren arteko ezkon bitzta ilauna abiapuntu hartuta. Senar-emazteek ez dute seme-alabarik eta Mattie Silver, Zeenaren lehengusina gaztea, etxean hartzen dute neskame, umezurtza baita.

Hemen kontatzen den triangelua, beste norbaiten eskutan, erraz izan zitekeen melodrama bat edo maitasun istorio eskas bat. Whartonek, aldiz, balio literario handiko obra osatu zuen: atmosfera iradokitzaileak eta gozoak sortzen ditu hizkuntza zehatza eta zenbaitetan poesiatik hurbilekoa baliatuz, eta pertsonaiak, itxuraz soilak badira ere, nortasun handiz hornitzen ditu, introspektzio psikologiko nabarmenaz.

Egilea / Autora:

Edith Wharton (New York, 1862 - Saint-Brice-sous-Forêt, Frantzia, 1937) Estatu Batuetan sortu, baina Europa eta Amerika artean bizi izan zen. XX. mendeko Estatu Batuetako idazle handienetakoa bat izan zen. Maisuki baliatu zituen ironia eta satira, kritika sozial zorrotza egiteko; New Yorkeko goi mailako gizarte klasearena, batik bat. Genero asko eta asko landu zituen, hala nola, poesia, eleberria, kontakizuna eta abar. Obra nagusiak: *The House of Mirth* (*Alaitasunaren etxea*, 1905), *Tales of Men and Ghosts* (*Gizonen eta mamuen ipuinak*, 1910), *Ethan Frome* (1911), *The Age of Innocence* (*Xalotasunaren adina*, 1920, Pulitzer saria), *The Buccaneers* (*Bukaneroak*, Warthonek amaitu gabe utzi, Marion Mainwaringek amaitu, eta 1993an argitaratua).

Itzultzaileak / Traductorak:

Miren Arratibel (Donostia, 1969), **Aintzane Atela** (Pasai San Pedro, 1969). Elkarrekin hasi ziren itzulpen-gintzan, Martuteneko Itzultzaile Eskolaren eskutik, eta Rosetta Testu Zerbitzuak enpresan dihardute gaur egun, itzultzaile-zuzentzaile. Ez da lehen aldia literatura lau eskutara itzultzen dutena; hain zuzen ere, aurrez argitaratuak dituzte, besteak beste, Unamunoren *Abel Sanchez*, G. Sanden *Negu batez Mallorcan*, G. Marxen *Groucho eta ni*, eta T. Martinez de Lezearen *Otalorea*.